



**ASTIGARRAGAKO UDALA**

EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

2024-2029

# AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA</b>	3
<b>1. SARRERA</b>	5
<b>2. METODOLOGIA</b>	9
<b>3. ASTIGARRAGAKO EUSKARAREN DIAGNOSIA: nondik gatoz?</b>	14
3.1 ZENBAT ETA NOLAKOAK GARA ASTIGARRAGAN?	14
3.2 ZEIN DOINU DAUKA GURE AHOTSAK?	18
3.3. INDARGUNEAK ETA HOBETZEKOAK (AMIA).	32
<b>4. PLAN ESTRATEGIKOA: AROA. Euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa</b>	34
4.1. GOBERNANTZA	36
4.2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK	40
4.3. EZAGUTZA / GAITASUNA	45
4.4. ERABILERA / ELKARRERAGINA	49
4.5. BERRIKUNTZA / IKERKETA	56
4.6. KOMUNIKAZIOA	57
<b>5. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA</b>	59
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b>	61
<b>7. ERANSKINAK</b>	62

# HITZAURREA

Euskaltzalearen gaitza da gaur gauzak kolore argiz eta indarrez ikustea eta bihar, berriz, ilun, laino beltzez inguratuta.

Batean aurrera goazela eta bestean atzera, maldan behera.

Normala da, nahi genukeenaren eta daukagunaren arteko arrakalak garamatza ekitera, etsitzera eta, ostera ekitera.

Orain gutxi, euskarari buruz ari ginela, semeak esan zidan zortea dugula euskaldunak garelako.

- *Zergatik?*, galdetu nion.

- *Polita delako euskararen alde gauzak egitea, zapaldu duten zerbaiten alde aritzea.*

Ekitera garamatzan erantzuna da hori.

Etsia hartzera garamatzate, aldiz, azken bolada luze samarrean euskararen aurka hartutako erabakiek.

Oldarraldia esan diogu, ez delako han-hemengo kasa bakan bat.

Euskaraz bizi nahi dugu eta euskaraz bizi gara askotan.

Baina ez beti, eta ez beti hala nahi izan arren eta saiatu arren.

Hori horrela izateko aldaketa ugari egin behar dira eta aldaketa horiek egiteko ekimena behar da eta ekintza eta jarduera zehatzak, plan honetan daudenak, esaterako.

Hori guztia beharrezkoa al da? Hori guztia eginda euskaraz biziko al gara?

Lehen galderaren erantzuna, bai, hori guztia egitera goaz eta bidean bururatzen zaizkigunak ere bai.

Beharrezkoa delako, barru-barrutik datorkigulako hori egiteko eta euskaraz bizitzeko nahimena.

Bigarren galderaren erantzuna: bai eta ez. Erabat, denok eta beti ez.

Baina, gero eta gehiago bai.

Ziur nago. Eta ziurtasun horrek narama aldarte atseginez astigartar guztioi gonbidapena egitera.

Oldarraldiak badira, eta izango dira.

Asko izan ditugu iraganean, eta nahi baino gehiago oraintsu.

Eta hemen gaude, eta poztutzen naiz...

**Xabier Urdangarin Lasa**  
**Astigarragako Alkatea**

# 1. SARRERA

Astigarragako Udalak Ahize-AEK<sup>1</sup>ri gonbidapena egin dio hausnarketa prozesu baten bitartez 2024-2029 udalerriko plan estrategikoa diseinatzeko, egungo egoeraren ebaluazioa osatuz eta plangintzaldi berrirako lan-ildo nagusien diseinurako proposamena egin dezan.

Ildo horretatik, txosten honen helburua da:

---

<sup>1</sup> Ahize-AEK hizkuntza-aholkularitzan dihardugunok Euskaraz Kooperatiba Elkarteko langile eta bazkideak gara.

## ASTIGARRAGAN EUSKARAREN EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA ETA PLANA OSATZEA ETA 2024-2029 PLANGINTZALDIKO EUSKARA PLANA DISEINATZEA.

Horretarako, Astigarragako Udalak 2024-2029 bitarteko Euskara Planaren erronka nagusiak identifikatzeko hausnarketa eta eztabaida prozesu bat sustatu du. Aipatutako prozesuak egungo euskararen egoera marraztu eta euskararen normalizazioa bultzatzeko elkarlanerako eta koordinaziorako bideak jarri ditu.

Partaidetza izan du oinarri eta bere egitekoak hauek izan dira:

**Egungo egoera ezagutzea:** euskararen erabileraren udalerriko, eskualdeko eta herrialdeko datu soziolinguistikoak aztertu eta landu dira. Era berean, parte-hartze prozesu baten bitartez udalerriko eragile eta herritarren iritziak eta ekarpenak jaso dira.

Ibilbidea aztertuta, **gako eta palanka nagusiak identifikatzea:** Astigarragan, egun, euskararen normalizazioa bultzatzeko egin den bidea ezagututa, egitasmoak, jarduerak, dinamikak, antolakuntzak... lotura eta harreman zuzena edo zeharkakoa duen guztia identifikatu da. Indarguneak eta ahuleziak ezagutu eta aurrera begirako palankak identifikatu dira.

Jasotako informazio eta ondorioetatik abiatuta, **etorkizuneko lerro nagusiak** definitzeko hausnarketa prozesua garatu da: hausnarketa hori udaleko ordezkari tekniko eta politikoeekin, hainbat diziplina eta arlotako herriko eragileekin eta parte hartu nahi izan duten herritarrekin batera egin da.

**Proiektu honek, erreferentzia gisa, kontuan izan du udal politika eta jarduera arautzen duen lege markoa:**

- Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera soziala sustatzeko politikak 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legean, Euskararen Erabilera Arautzekoan, dauka bere hastapeneko erreferentzia. Herri aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorioz, herri aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.
- Era berean, uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, lanpostuetako hizkuntza eskakizunen derrigorrezko datari dagokionez.
- Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arauz, 1997ko apirilaren 15eko 86/97 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri administrazioek euskararen erabileraren normalizazioaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtaldirako planak egitea aurreikusten du Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurri guztiak.
- Aurreikuspen horien artean, hizkuntza normalizazio prozesua abiarazteko oinarrizko tresnatzat jotzen ditu aipatutako dekretuko 4. artikulua euskararen erabilera normalizatzeko planak. Zehazki, 18. artikulua dio entitate bakoitzak 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika, bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko direla euskararen erabilera planetan.
- 2003ko abenduaren 22ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legeak eta 2008ko uztailaren 1eko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzko 123/2008 Dekretuak ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die kontsumitzaile eta erabiltzaileei. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.


- Kontuan hartu beharrekoa da 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa. Legearen 6. eta 7. artikuluek xedatutakoaren arabera, euskara tokiko erakundeon jardueretan erabilera normal eta orokorreko zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izango da. Edonola ere, bermatu egin beharko da erakundeekin harremanak izateko orduan herritarrak nahi duen hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
- 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, aintzat hartu beharrekoa da, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Azkenik, aurkeztu berri den ebazpena ere kontuan hartu beharrekoa da, hauxe, hain zuzen ere: 12/2024 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Jaurkitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratzen baita «Aroa / euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko Marko Estrategikoa» nortasun-ikur berezia onartzeko erabakia.



## 2. METODOLOGIA

ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) VI. plangintzaldiarekin batera bukatu zen, eta 2022ko abenduaren 31ra arteko indarraldia zuen. Data hori baino lehen, Eusko Jaurlaritzak VII. plangintzaldirako marko berria aurkeztu behar zuen. Hala ere, jaurlaritzaren agenda tarteko, 2023an ere ESEP luzatzeko erabakia hartu zen jaurlaritzatik, eta testuinguru horretan, plan hau Eusko Jaurlaritzak AROA: euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko plana aurkeztu aurretik hasi zen idazten. 2024ko urtarrilaren amaieran aurkeztu du Eusko Jaurlaritzak AROA, eta, justu horren ostean, eta marko berri horri egokituta amaitu da plan hau. Horregatik, diagnosian zehar bereizitako atalak aurreko planak zedarritutakoak dira. Aitzitik, plana bera AROAk markatutako parametroetara ekarria dago. Honako hauek izan dira plan honetan landutako atalak (Eusko Jaurlaritza, 2024):

ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
<b>GOVERNANTZA</b>		
<p><b>G.1.</b> Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.</p> <p><b>G.2.</b> Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin zein kulturekin bizikidetzan.</p> <p><b>G.3.</b> Euskararen indarberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.</p> <p><b>G.4.</b> Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.</p>		
JARRERAK / MOTIBAZIOAK	EZAGUTZA / GAITASUNA	ERABILERA / ELKARRERAGINA
<p><b>JM.1.</b> Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.</p> <p><b>JM.2.</b> Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.</p>	<p><b>EG.1.</b> Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.</p> <p><b>EG.2.</b> Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.</p> <p><b>EG.3.</b> Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.</p> <p><b>EG.4.</b> Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.</p>	<p><b>EE.1.</b> Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.</p>
<b>BERRIKUNTZA</b>		
<p><b>B.1.</b> Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.</p>		
KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOAK		
IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA	KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA	
<p><b>IS.1.</b> Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.</p>	<p><b>KH.1.</b> Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldea identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</p>	



Diagnostikoa osatzeko hiru lan-eremu jorratu dira:

- Astigarragako Udaleko ordezkari tekniko eta politikoa.
- Astigarragako udalerriko eragileak (elkarte, talde, eragile...):
  - Hezkuntza eta familia esparrua
  - Kultura, aisia eta kirola
  - Nerabeak eta gazteak
  - Arlo sozioekonomikoa (merkataritza eta ostalaritza)
  - Euskalgintza
- Herritarrak, oro har.

Ahizeko aholkulariak arduratu dira prozesua dinamizatzearaz eta hortik eratorritako lan-plangintza garatzeaz, betiere, Astigarragako Udaleko Euskara Zerbitzuarekin koordinatuta.

Orain arte egindako ibilbidea aztertzeke **hainbat informazio iturri** izan dira eta horietatik jasotakoa aztertu eta ondorioak batu dira. Horrela, Astigarragako euskararen egungo diagnostikoa osatu da:

1. **Datu soziolinguistikoaren azterketa:** hainbat datu aztertu dira galdetegiaren eta elkarrizketen informazioa osatzeko; besteak beste, erroldako ezagutza datuak, euskaltegiaren matrikulazio datuak, inkesta soziolinguistikoaren datuak, kale-erabilera datuak... Azken 20 urteetako datuak hartu dira kontuan.

- 2. Datu kualitatiboen ustiapena:** bigarren informazio iturria izan da. Horretarako, batetik, galdetegi baten bidez, Astigarragako egungo euskararen egoerari buruz eta orain arte herrian egindako ekintzei buruz galdetu zaie herritarrei; 65 herritarren erantzunak jaso dira (48 emakume eta 17 gizon). Hausnarketa eta iritzi kualitatiboak eta subjektiboak izanik ere, nahitaezkoak izan dira diagnostikoa osatzeko. Bestetik, herritar esanguratsu batzuei elkarrizketak egin zaizkie, Astigarragako euskararen egoerari buruz euren iritzia eman zezaten (10 elkarrizketa egin dira: 7 emakume eta 3 gizon).

Elkarrizketak egiteko aukeratu direnak nor bere arloan herriko egunerokoaren parte dira (kulturgintzan, gazte asanbladan, gaztetxoekin lanean...). Astigarragako Udaleko teknikari batzuk ere izan dira elkarrizketatuak, haien arloak estrategikoak direlako (tokiko garapena, berdintasuna, kultura...).

- 3. Parte-hartzerako espazioak:** udalerriko hainbat esparrutako kideekin arlokako eztabaida taldeak antolatu dira, ekarpen eta balorazio zehatzak jasotzeko. 2023ko azaroan zehar egin ziren bost saioak eta honako arlo hauetako herritarrak elkartu dira: hezkuntza eta familia; kultura, aisia eta kirola; nerabeak eta gazteak; lan-mundua; eta euskalgintza. Horrez gain, gazteen iritzi zabalagoa jasotzeko asmoz, Martuteneko Arantzazuko Ama BHI institutuko gazteekin elkartu eta euren iritzia jaso da; izan ere, bertako *Palarra* euskara taldeko 10 kideetik 8 astigartarrak dira.

Gainera, esan beharra dago, euskaraz ez dakitenak ere guregana hurbiltzeko saiakera egin dugula, eta horien iritzia ere jaso dela. Horren erakusle da galdetegia ele bitan 10 herritarrek osatu dutela.

2023-2027 legegintzaldiaren hastapenetan eta udal gobernuaren bultzadaz, udaleko hainbat sailetatik planteatutako partaidetza-prozesuak komunikazio aterki berean gizarteratzea hobetsi da. Testuinguru horretan, partaidetza prozesu bakoitzaren diseinua eta egituraketa mantentzeko ahalegina egin da. Ezinbestean, ordea, zenbait egokitzapen egin dira; bereziki, egutegiari dagokionez eta, beti ere, herri-eragileen eta herritarren partaidetza errazteko asmoz. Horregatik, udal-sailen arteko elkarlana oinarri, partaidetza prozesu guztiak egutegi bakar batera lerratu dira.

Egokitzapenak egoitzapen, aldaketarik esanguratsuena hauxe izan da: esparru bakoitzean bina bilera ireki egitea aurreikusi bazen ere, bakarra egin da.



*2023ko azaroan egindako bi saiotako argazkiak.*

# 3.


## ASTIGARRAGAKO EUSKARAREN DIAGNOSIA: Nondik gatoz?

### 3.1 Zenbat gara eta nolakoak gara Astigarragan?

Astigarraga Gipuzkoa ipar-ekialdean dagoen udalerrri bat da eta Donostialdea eskualdean dago, Buruntzaldean. Buruntzaldea sei udalerrik osatzen dute: Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte-Oria, Usurbil eta Andoain. Donostia hiriburuko erdigunea 7 kilometrora dago. Hala ere, Donostiako Martutene auzotik kilometro bakarrera dago, eta historikoki lotura handia izan du bai auzo horrekin, bai hiriburuarekin.

Azken 20 urteetan biztanleria izugarri handitu da, eta, egun, 7.660 biztanletik gora ditu Astigarragak. 2000. urtean 3.400 biztanle inguru izatetik, 7.000tik gora izatera pasa da, hau da, 20 urtetan biztanleria bikoiztu egin da (1. taula). Donostialdeko gainerako udalerrian aldean, biztanleriaren igoera tasa handiena izan duen herria da.


**1. taula: biztanleria datuen bilakaera (2000-2019).**



2000. urtean 3.500 biztanle zituen eta 2019. urte amaieran 7.000 biztanleko langa gainditu zuen.

*Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika. Siadecok landua, 2019.*

**2. taula: 2022ko biztanleria datuak adina eta sexuaren arabera.**



2013tik gora nabarmen igo da biztanleria Astigarragan.

Iturria: EUSTAT.



**3. taula: Astigarragako jaiotza tasa (2000-2018).**

UDALERRIA	JAIOTZA TASA (%)
Astigarraga	13,28
Aretxabaleta	9,14
Deba	6,93
Lazkao	7,67
Lezo	8,12
Mutriku	8,57
Orio	9,15
Urnieta	5,80
Urretxu	5,18
Usurbil	7,47
Villabona	7,14


Antzeko neurria duten gainerako  
Gipuzkoako udalerrien jaiotza tasa.

*Iturria: Udalmap\_2019. Siadecok landua.*

Datuak ikusita azpimarratzekoa da azken 20 urteetan etengabe hazi dela biztanleria Astigarragan eta, gainera, biztanle gazteak direla gehienak. Neurri antzekoa duten Gipuzkoako gainerako udalerriekin alderatua bertan izan da jaiotza tasa handiera (3. taula). Inguruko herrietan biztanleria igoera handiena izan duen herria ere izan da eta horrek ezinbestean izan du isla bertako egoera soziolinguistikoan. Hori ezinbesteko datua da ondorengo datuak ulertzeko eta interpretatzeko.

### 3.2. Zein doinu dauka gure ahotsak?

#### 1. grafikoa: euskararen ezagutza (2021).




Egun astigartarren erdiak baino gehiago dira euskaldunak.

Iturria: EUSTAT<sup>2</sup>.

<sup>2</sup>Eustat Estadística Institutuak bost urtetik behin argitaratzen ditu datuak, eta datu horiek aitortuak dira; hau da, elkarrizketatuek emandako erantzunak dira.


**4. taula: euskararen ezagutza datuak. Bilakaera (2001-2021).**



Azken hogei urteetan euskararen ezagutzak 5 puntu egin du gora.

Iturria: EUSTAT.

**5. taula: euskarazko kale erabilera eta euskarazko gaitasuna adinaren arabera (2021).**




Ia haur guztiak dira euskaldunak eta gazteen % 80tik gora dira euskaldunak.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

Datuek erakusten dutenez, Astigarragako biztanle-kopurua igo ahala, euskararen ezagutza ere igo egin da, hortaz, azken ikerketei erreparatuta, 5 puntu egin du gora euskararen ezagutzak. Euskaldunen eta ia euskaldunen kopurua aintzat hartuta, 2022 urte amaieran, Astigarraga UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean) sartu zen. Gainera, erdaldun elebakarrak % 18 soilik dira herrian.

Adinari erreparatuz gero, Astigarragako ia haur guztiek dakite euskaraz (% 92,8), baita gazteen % 89,2k ere.


**6. taula: Astigarragako AEK-ko datuak (2019-2023).**



Covid-19 pandemiaren ondoren ikasle kopuruak beherakada izan bazuen ere, iazko ikasturteko datuak positiboak dira berriz ere.

*Iturria: Astigarragako AEK.*

**7. taula. Ikasle kopurua mailaz maila (2019-2023).**




Helduen euskalduntzeari dagokionez, herrian euskaltegi bakarra dago: AEK. Euskara ikasteko taldeak eta autoikaskuntza formatua ditu (ikaslea eta tutorea), eta horretaz gain, hainbat egitasmo antolatzen ditu, esaterako, Mintzalaguna eta Zilegi Eskola. Helburua ikasleak herritarrekin nahastea da, baita euskara klasetik ateratzea ere.

Iturria: Astigarragako AEK.

Euskaltegiko ikasleen maila askotarikoa da, euskaltegian hasiera mailatik hasi (A0) eta goi mailara arteko taldeak baitituzte (C1). Nabarmentzekoa da azken ikasturteetan A0 mailako ikasleak ugartu egin direla eta horien joera goranzkoa dela.

Azken urteetan matrikula kopurua jaitsi egin da; hala ere, pasa den ikasturtean berriro ere goranzko joera hartu du. Gainera, euskaltegiko taldeez gain, 2023-2024 ikasturtean Galtzaur jubilatutako taldearekin elkarlanean, euren egoitzan eskolak ematen dituzte.

## 2. grafikoa: kale erabilera (2021).



Egun Astigarragan entzuten diren 10 elkarrizketatik 3 soilik dira euskaraz.


*Iturria: Soziolinguistika Klusterra*

Datuek erakusten dutenez, 2001etik 2021era euskararen kale erabilera gorabeheratsua izan da; hala ere, badirudi % 30 inguruan finkatzen ari dela. Hala ere, azken bi neurketen artean 7 puntuko jaitsiera izan da (2016: %38,7; 2021: % 31,8).

Aipatzekoa da ez dela desberdintasun handirik sumatu herrigunearen eta auzune berrien artean, 2021eko kale neurketek hori baieztatu dute.

Aurretik ikusitako ezagutza datuekin alderatuta aldea nabaria da: euskaraz komunikatzeko gai diren astigartar askok egunerokoan ez du euskara erabiltzen.

### 8. taula: hizkuntzen kale erabilera datuen bilakaera (2001-2021)<sup>3</sup>.



Azken hogei urteetan kale erabilera datuen bilakaera gorabeheratsua izan da Astigarragan.


Iturria: Soziolinguistika Klusterra<sup>4</sup>

<sup>3</sup> 2021ean lehen aldiz ibilbide berri bat txertatu da Astigarragako kale neurketan: Kontxa Etxeberria plaza ingurua.

<sup>4</sup> Soziolinguistika Klusterrak egindako kale erabilera neurketetan behaketa sistema erabiltzen du; hau da, behatzaile batek ibilbide jakin batzuetan herritarrek zein hizkuntza darabilten jasotzen du, hiztunak ohartu gabe.




**9. taula: hizkuntzen kale erabilera datuak adinaren arabera. Bilakaera (2001-2021).**



Azken hogei urteetan adinaren araberako kale erabilera datuak gorabeheratsuak izan dira.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.

**10. taula: hizkuntzen kale erabilera datuak adinaren<sup>5</sup> arabera (2021).**



Haur eta gazteak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak.

Iturria: Soziolinguistika Klusterra.


Adinaren araberako erabilerari dagokionez, euskararen erabilera altuena haur eta gazteetan jaso da: %40,3 eta %40,8, hurrenez hurren.

<sup>5</sup> Aldaketa metodologikoa helduen taldea bitan banatu da: 25-44 eta 45-64 urte.

Heldu gazteen adin-taldean pixka bat baxuagoa izanik ere, batezbestekotik gora dago (%36,2). Erabilera-datu baxuena heldu nagusietan jaso da (%17,6), zertxobait altuagoa adinekoetan (%21,5). Beraz, haurren kasuan, beheranzkoa da joera (2016ko gorakada salbuetsita), eta gazteen kasuan, aldiz, 2011ra arte gorantz egin du erabilerak; 2016an behera; eta azkeneko neurketan, berriz, gora. Dena den, haurren arean inoizko daturik baxuenak bildu ziren azken neurketan (% 40,32). Adinekoen kasuan ere jaitsi egin da erabilera (% 39,2tik %21,5era). Aldiz, gazteen eta helduen artean azken hogeitazko urteetako joerari erreparatuta, igo egin da euskararen kale erabilera.

Adi jarraitu beharreko joerak dira aipatutakoak, horiek markatuko baitute herriko etorkizuneko euskararen erabilera. Hala ere, Emaizak bat datoz herri euskaldun gehienetako joerekin, haurrak eta gazteak batezbestekoaren gainetik egotea, alegia.


### 3. grafikoa: lehen hizkuntza (2021).



Astigartarren herenak baino gehiagok du euskara lehen hizkuntzatzat.

Iturria: EUSTAT.

### 11. taula: lehen hizkuntzaren bilakaera (2001-2021).




Azken hogei urteetan lehen hizkuntza euskara duten herritarren kopurua jaitsi egin da.

Iturria: EUSTAT.

Euskararen ezagutza igo egin den arren, lehen hizkuntza euskara duten herritarren ehunekoa jaitsi egin da; aitzitik, lehenengo gaztelania jasotzen dutenena, igo. Bi arrazoi daude: batetik, azken 20 urteetan Astigarragako biztanleria nabarmen igo izana; bestetik, euskaldunen profila aldatzen ari da, eta, ondorioz, nahiz eta etorritako herritarrek euskaraz komunikatzeko gaitasuna izan, horien hizkuntza-ohiturak ez dira euskaldunak eta gaztelaniaz hitz egiteko joera dute.


#### 4. grafikoa: etxeko hizkuntza (2021).



Egun astigartarren laurdenak baino gutxiagok du euskara etxeko hizkuntzatzat.

Iturria: EUSTAT.

**12. taula: etxeko hizkuntzaren bilakaera (2001-2021).**



Azken hogei urteetan etxeko hizkuntza euskara duten herritarren kopurua 12 puntu baino gehiago jaitsi da.

Iturria: EUSTAT.

Etxeko hizkuntzaren bilakaerari erreparatuta ere, egoera antzekoa da. Euskaldunak diren familien etxeko hizkuntza gero eta gutxiagotan da euskara. Nahiz eta etxean euskaraz mintzatzen diren herritarrak 2001ean baino gehiago izan, proportzioan gazteleraz aritzen direnak askoz gehiago igo dira. Etxean bi hizkuntzak erabiltzen dituztenen kopurua nabarmen igo da 2001etik 2021era. Horrek esan nahi du bi hizkuntzak presente daudela Astigarragako etxe askotan, beraz, Astigarragako familia askotan euskaldunez eta erdaldunez osatutako familiak gero eta gehiago dira.

### 3.3. Indarguneak eta hobetzekoak (AMIA):

Herritarren iritziak biltzen bukatzeko, taula honetan jaso dira elkarrizketetan eta lan-mahaietan azaldu diren ideia, iritzi eta ondorioak. Bereziki, Astigarragan euskararen normalizaziorako dauden oztopo eta aldekoiei buruz galdetu zitzairen herritarrei, eta hortik ateratakoekin indargune/aukera eta ahulgune/mehatxuak banatu dira.

INDARGUNEAK/AUKERAK	AHULGUNEAK/MEHATXUAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astigarraga 2022 urte amaieran sartu zen UEMAn eta, herriko egoera linguistikoari dagokionez, aurrerapauso nabarmena izan da hori.</li> <li>• Euskararen ezagutza-maila altua da herrian.</li> <li>• Haur eta gazteek erabiltzen dute euskara gehien (7. taula).</li> <li>• Jaiotza tasa altua denez eta euskara gehien haur eta gazteek erabiltzen dutenez, etorkizunean erabilera handitzeko aukera dago.</li> <li>• Herria euskararen arloan egiten diren ekintzak.</li> <li>• Herrian gazte euskaldun erreferenteak daude eta herriko bizitzan parte hartzen dute.</li> <li>• Herriko eskaintza kultural handiena euskaraz da.</li> <li>• Astigarragako AEKn ikasle kopurua igotzen ari da.</li> <li>• Buruntzaldeko herrietan kalean euskara entzutea normalizatuta dago.</li> <li>• Euskararen sustapenaren aldeko jarrera.</li> <li>• Eragile eta elkarteetan herritar euskaldunak daude.</li> <li>• Euskara plana egiteko prestutasuna.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astigarragak UEMAn egoteko baldintzak betetzen baditu ere, erabilera-datuak ez dira onak. Izan ere, kale neurketen arabera, Astigarragan 10etik 3 elkarrizketa baino ez dira euskaraz.</li> <li>• Haur eta gazteei dagokienez, azken bi neurketetan (2016 eta 2021) beherakada sumatu da.</li> <li>• Familia eta etxeko esparruari erreparatuta, euskararen transmisioak beheranzko joera duela ikusi da.</li> <li>• Aisialdiari dagokionez, batez ere haur eta gazteen arloan, herriko eragileek erabiltzen duten hizkuntzaren gaineko kezka nabaria izan da lan-mahaietan.</li> <li>• Herriko eragileek ez dute hizkuntza irizpiderik markatuta, eta, beraz, gaztelaniara jotzea errazagoa da.</li> <li>• Haur eta gazteek euskara eskolarekin lotzen dute.</li> <li>• Etxeko erabilerak 18 puntu egin du behera.</li> <li>• Kanpoko jende asko etorri da bizitzera eta horrek egoera soziolinguistikoa aldatu egin du.</li> <li>• Herritar ezezagunekin gaztelera erabiltzeko joera dago.</li> <li>• Euskaldun eta euskaltzaleen arteko sarea trinkotu gabe dago.</li> <li>• Merkataritza eta ostalaritza arloan euskarak ikusgarritasun urria: paisaia linguistikoa landu beharra.</li> </ul>



# 4. PLAN ESTRATEGIKOA: AROA. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa

Astigarragan euskara sustatzeko estrategiak jasotzen dituen dokumentua da Euskararen Plan Estrategikoa; datozen urteetan Astigarragan euskara indartzeko herritarrek eta udalak izango duten lanerako tresna.

## ASTIGARRAGAKO EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUA 2024-2029

Gure gizartea osatzen duten eragile publiko zein pribatu guztientzat datozen urteetarako marko eta bide-orria eskaintzea da helburua, euskal hiztunak sortu eta ahalduntzeko zein euskararen komunitatea sendotzeko. Bestela esanda, Astigarragan euskararen erabilera handitzea, batez ere haur eta gazteen eremuan, ezagutza alde batera utzi gabe. Era berean, eragileekin elkarlana lantzea eta sinergiak batzea ere bada xedea.

ARDATZ NAGUSIAK	KUDEAKETA ARDATZAK
1. GOBERNANTZA	5. KOMUNIKAZIOA
2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK	6. IKERKETA / BERRIKUNTZA
3. EZAGUTZA / GAITASUNA	
4. ERABILERA / ELKARRERAGINA	

Hauek dira lehenetsitako ardatzak, euskararen ezagutzaren eta erabileraren aldeko aurrerapausoak emateko:

1. GOBERNANTZA
2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK
3. EZAGUTZA / GAITASUNA
4. ERABILERA / ELKARRERAGINA
5. IKERKETA / BERRIKUNTZA
6. KOMUNIKAZIOA



## 4.1.GOBERNANTZA

### G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
<b>1.1</b>	<b>Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.</b>							
	Euskararen 2024-2029 Plan Estrategikoa osatu eta herriko eragileekin plangintza adostu, koordinatu eta elkarlanerako ildoak zehaztu.	AHIZE, herriko eragileak						
	Udaleko Euskararen Erabilera Plana (VII.Plangintzaldia) diseinatu eta ezarri. (Jarraipen batzordea osatu; urtean 3 bilera)	UEMA; HPS						
	UEMAren eta Buruntzaldeko urtez urteko planak bateratu elkarren osagarri izan daitezen eta Plan Estrategikora ekarri.	UEMA; Buruntzaldea						
<b>1.2</b>	<b>Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzional zein sozialean.</b>							
	“Buruntzaldea euskaraz”–en baitako elkarlanerako egitasmoak kudeatu	Buruntzaldea						
<b>1.3</b>	<b>Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.</b>							

## G.2. Berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntza nahiz kulturekin bizikidetzan.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
2.1	Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.							
2.2	Zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.							
	Zeharlerrotasunez, hizkuntza-politika integral eta berritzaileak landu: ASTIGARRAGAKO EUSKARA KONTSEILUA sortu.	Herriko eragileak						
2.3	Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.							
	Etorri berrientzako harrera planaren disienuan hizkuntza zeharlerrotasunez landu eta harrera linguistikoa aurreikusi.							

### G.3. Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
3.1	Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.							
	Munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan, (herriko) hizkuntza aniztasuna balioan jarri.	Herriko eragileak; Garabide elkarte						
	Euskal Herriko beste lurralde bateko herriren batekin senidetzeko aukera aztertu.							

## G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
4.1	<b>Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu.</b>							
	Ingurune digitalean euskarak ahalik eta presentziarik handiena izan dezan herritarrak kontzientziatu ("Common Voice-BATU DITZAGUN GURE AHOTSAK").	Euskaingintza						
	Merkataritzako eta elkarteetako jarduera euskalduntzeko laguntzetan, ingurune digitalari begirako berrikuntzak txertatu							
4.2	<b>Arlo digitaleko era guztietako enpresa eta erakundeekiko harremanak ahalbidetu eta aliantzak landu.</b>							
4.3	<b>Zaintza teknologikoa ziurtatu.</b>							
4.4	<b>Adimen artifizialean euskara hizkuntza nagusien pare egoteko lanketa egin.</b>							

## 4.2. JARRERAK / MOTIBAZIOAK:

**JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta portaeretan eragin.**

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
1.1	<b>Euskaldun izatearen kontzientzian eragin.</b>							
	Gurasoentzako kontzientziatzeko lanketa; sentsibilizazio saioak antolatu (guraso euskaldunentzat eta ez-euskaldunentzat).	UEMA, Herri eskola, Guraso Elkarte						
	Astigarragako Herri Eskolan "Euskara eta kulturartekotasuna" proiektua ezarri.	UEMA, Herri Eskola						
	Errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpainari jarraipena eman.	UEMA						
	Izen-abizenak euskalduntzeko APELLIDUAK ABIZENDU kanpaina indartu.	Buruntzaldea						
	"Arnasa gara" kanpaina herrira zabaldu.	UEMA; Euskarabidea, HPS						


	"Egin nirekin ere euskaraz" kanpaina herrira zabaldu.	UEMA							
	KORRIKA eta KORRIKA KUTURALA antolatzeko baliabideak eskaini.	AEK							
	Euskararen egunaren egitaraua indartu.	Herriko eragileak							
1.2	<b>Gizartea aktibatzeneko esperientziak indartu eta hedatu.</b>								
	Astigarragako Herri Eskolako ikasleei begirako tailerrak indartu: Ispiluari Begira, Bagoaz!	UEMA							
	Astigarragako Herri Eskolan UEMAREN HEDATU hezkuntza proiektu integrala indartu.	UEMA							
	Jaioberrien familiei hizkuntza-transmisiorako bitartekoak eskaini: Buruntzaldeko materiala, UEMAKO gutuna, Hazi Hezi aldizkarirako harpidetza.	UEMA; Buruntzaldea							
	DBHko ikasleentzat tailerrak eskaini (Gaztelekuaren bidez): Bixitailerra.	UEMA, Gaztelekua							
	Aisialdi hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, herri hezitzaile(ago)a erakitzea.	OINHERRI							
	Haur Eskolako eta Astigarragako Herri Eskolako irakasleak trebatu soziolinguistikan eta erabilera-estrategietan.	UEMA, Herri Eskola							



	Herriko hezitzaileak (aisialdi, kirol, hezkuntza-ez formala) formatu hizkuntza-kudeaketan: trebatu soziolinguistikan eta erabilera-estrategietan.							
	Aisialdiko begirale edo zuzendari titulurako euskarazko prestakuntza finantzatu (dirulaguntzak).							
1.3	<b>Euskal hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.</b>							
	Euskaraldia sendotu eta hedatu.	Euskaltzaleen Topagunea						
	Udalekuetako begiraleei ahalduntze saioa eskaini.	UEMA						
	Euskararen biziberritzea ardatz, erreferentziazko ekintza-solasaldi zikloa antolatu (Zilegi Astea).	Herriko eragileak AEK						
	Herrian euskaltzaleen euskara-talde bat sortzeko lanketa egin: euskaldunak eta euskaltzaleak saretu.	Herriko eragileak						
	Hiztun komunitatea trinkotzeko eta aktibaziorako dinamikak indartzeko ahalduntze edota motibazio saioak eskaini eta sentsibilizazio saioak egin.	Euskaingintza						

## JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
<b>2.1</b>	<b>Euskararen komunitatea sendotu.</b>							
	Harrera plana diseinatzerakoan, hizkuntzaren gaia zeharlerrotasunez landu.	UEMA, Buruntzaldea						
	Udalerriko turismo eragileak sentsibilizatzeko bitartekoak eskaini.							
	SALTO! udalekuen zabalkundea egin.	UEMA						
	Arnasguneen errealitatearen eta garrantziaren gaineko hitzaldiak eskaini.							
<b>2.2</b>	<b>Euskararen erakargarritasuna landu.</b>							
	Kirolean (ere) euskarazko joera nagusitzeko, hezitzaile eta entrenatzaileei bideratutako saioak antolatu.	UEMA						
	Kirolean (ere) euskarazko joera nagusitzeko, herri mailako kirol munduko erreferente euskaldunekin sentsibilizazio kanpaina abiatu.							
	Gazteentzat erreferente-euskaldunak ekarri (kirol edota kultur arlokoak, nagusiki).							

2.3	<b>Euskal hiztun-mota eta komunikazio-egoera askotarikoak balioetsi.</b>		
	<i>(UDAL) Hizkuntza irizpideen egikaritzea</i>		
2.4	<b>Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri.</b>		
	Erdaldunentzako tailerrak eskaini.		

## 4.3. EZAGUTZA / GAITASUNA

### EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
1.1	<b>Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri.</b>							
	UEU eta udako unibertsitateko euskarazko ikastaroak finantzatu (dirulaguntzak).							
1.2	<b>Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.</b>							
	Familiei bideratutako euskarazko eskaintza indartu.							
1.3	<b>Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.</b>							

## EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
2.1	<b>Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.</b>							
	Euskaltegietako matrikulazio kanpainaren zabalkundea indartu.	AEK, Buruntzaldea						
	Herriko merkatari eta ostalariei euskaraz trebatzeko ikastaroak (bereziak) eskaini.	AEK, Astiko						
	Herriko merkatari eta ostalariei oinarrizko ezagutza bermatzeko baliabideak eskaini: hiztegitxoak, itzultzaileak...	UEMA, Astiko						
	Udal langileei trebakuntza eskaini.	UEMA						
	Lanbide Heziketa Euskaraz; Buruntzaldeko euskarazko eskaintzaren berri eman eta praktikaldia euskaraz egiteko aukera ematen duten enpresak ikusarazi.	Buruntzaldea, Laneki, Mankomunitatea						
	Lanbide Heziketako materiala euskaratzeko baliabideak eskaintzen jarraitu.							

<b>2.2</b>	<b>Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.</b>							
	Euskara ikasteko eskaintza zabaldu eta indartu (AEKrekin lankidetzan jarraitu)	AEK						
	Euskara ikasteko dirulaguntzak berrikusi, doakotasuna helburu.	AEK, UEMA						
	Euskaltegiarentzat egoitza berria.							

### EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
<b>3.1</b>	<b>Atzerritar jatorriko herritarrek euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.</b>							
	Etorri berrientzako harrera planaren disienuan hizkuntza zeharlerrotasunez landu eta harrera linguistikoa aurreikusi.							

## EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasunari (gaitasun erlatiboari) berariaz erreparatu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
4.1	<b>Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena.</b>							
	Astigarragako Herri Eskolako ikasleentzat hizkuntza-errefortzuak indartu.	Herri Eskola, Buruntzaldea						
4.2	<b>Euskara gaitasuna hobetzen lagundu, adierazkortasunari bereziki erreparatuz.</b>							
	Ahozkotasuna lantzeko saioak antolatu: irrati/podcast tailerrak, bakarrizketa ikastaroak, txiste txapelketak, bertsopaper lehiaketak, literatura lehiaketak...							
4.3	<b>Helduak euskalduntzeko eskaintza egokitu dauden egoera ugarietara.</b>							

## 4.4. ERABILERA / ELKARRERAGINA

### EE.1. Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berriazko estrategiak garatu.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
<b>1.1</b>	<b>Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu</b>							
	Udaleko euskararen erabilera plana (VII. plangintzaldia) hautetsiei eta langileei aurkeztu.	UEMA						
	Udal hautetsiak ahalduntzeko eta sentsibilizatzeko lanketa egin.							
	(udal) Hizkuntza irizpideen gida erraza sortu.	UEMA, Herriko eragileak						
	Beterri-Buruntza mankomunitateko hizkuntza irizpideen lanketari jarraipena egin.	Buruntzaldea, Mankomunitatea						
	Dirulaguntza izendunetan euskararen erabilerari buruzko konpromisoa txertatu.							



	Dirulaguntza oinarrietan euskararen erabilerari buruzko irizpideak txertatu eta hizkuntza-irizpideak betetzen direla gainbegiratu.								
	Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko ordenantza onartu eta batzordea eratu.	UEMA, kanpo aholkularitza							
	HAPOaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin.	UEMA, kanpo aholkularitza							
	Mintzapraktika egitasmoak indartu eta ekintza osagarriak antolatu (Mintzalagun, Gurasolagun, Zilegi Eskolak...).								
	Euskararen erabilera areagotzea helburu duten egitasmoak finantzatu (dirulaguntzak).								
<b>1.2</b>	<b>Eremu sozio-geografiko euskaldunetan bereziki bermatu familia-transmisioa, zerbitzu publikoak euskaraz eskaintzea eta erabiltzea, euskarazko zaintza zerbitzuak eta identitatea indartzeko ekimenak.</b>								
	Udalerrri euskaldunak balioan jartzeko "Bertatik Bertara" kanpainari jarraipena eman.	UEMA							
	"Euskaraz barra-barra" marka bateratua zabaldu herriko establezimenduetan.	UEMA; HPS							
	Terrazen ordenantzako hizkuntza-irizpideak betetzen direla gainbegiratu.								

	<p>Literaturzaletasuna suspertzeko ekintzak indartu: ipuin kontalariak, irakurketa klubak, bisita gidatuak liburutegira...</p>	<p>Kultura, liburutegia</p>						
<p>1.3</p>	<p><b>Eremu sozio-geografiko ez-euskaldunetan, babesgune izateko aukera duten eremuen mapa definitu eta esku-hartzeko sistema eraginkorrak bilatu.</b></p>							
	<p>Merkataritzako eta elkarteetako jarduera euskalduntzeko laguntzei jarraipena eman.</p>							

## EE.2.Euskaraz bizitza arrunta izango den gune sozio-funtzionalak indartu eta berriak sortu, eremu geografikoa edozein izanda ere.

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
<b>2.1</b>	<b>Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin.</b>							
	Ahozotasuna indartu eta euskal kultura sustatzeko, bertso-eskola diruz lagundu.	Bertsozale Elkarte						
	Gazteen artean ahaztasuna indartzeko egitasmoak sustatzen jarraitu ("Gu ere bertsoan" ...).	Herri Eskola, Bertsozale Elkarte						
	Etxeko erabilerari buruzko datuak sistematikoki jaso.	Herri Eskola, UEMA						
<b>2.2</b>	<b>Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.</b>							
	Herriko denda, taberna eta ostatuetan euskararen erabilera sustatzeko hizkuntza zerbitzuen berri eman.							
	Herriko denda, taberna eta ostatuetan euskararen erabilera sustatzeko, datu basea eguneratu euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak jasoz (eta hizkuntza zerbitzuen berri eman).	Toki Garapena						

	Establezimendu berrientzako gida-laburra sortu, hizkuntza-zerbitzuen berri emateko eta paisaia linguistikoa euskaldundu dezaten.	Toki Garapena, Mankomunitatea						
	Herriko establezimenduek "Bai Euskarari Ziurtagiria" eskuratzeko bitartekoak eskaini							
	Lan mundua euskalduntzeko esku-hartzea: "Txikitik handira, jauzi: merkataritza-ostalaritza-tik industriara..."	Mankomunitatea, Toki Garapena						
	Finantza erakundeetako/banketxeetako behaketak egin: intzidentziak bildu eta bideratu.	UEMA						
	Udal administrazioaz kanpoko zerbitzuetan eragiten jarraitu (osasun zentroa etab.): hizkuntza- intzidentziak jaso eta horiei erantzun.	UEMA						
	Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko GIDABAIMENA EUSKARAZ ekimena indartu.	Buruntzaldea						
2.3	<b>Hezkuntzako, udal edo mankomunitateetako eta euskalgintzako eragileak elkarlanean, tokian tokiko hizkuntza proiektuen bidez, hiztun osoak sortzeko estrategiak diseinatu eta ekimenak garatu, motibazio- eta gaitasun-sistemetan eraginez</b>							
2.4	<b>Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu</b>							
	Aisialdiari begirako euskarazko kultur eskaintza zabala eskaintzen jarraitu.	Kultura						

2.5	<b>Ingurune digitalean euskara eroso erabiltzeko espazioak irabazi.</b>		
	Ingurune digitalean (ikus-entzunezkoak, bideojokoak...) euskarazko kontsumoa bultzatzeko gazteei bideratutako jarduerak antolatu	Game Erauntsia	
2.6	<b>Euskarazko ikus-entzunezkoen eskaintza handitu, bereziki fikziozkoa, eta, horrekin batera, plataformetarako estrategiak pentsatu.</b>		
2.7	<b>Euskarazko hedabideak bultzatu.</b>		
	Euskal prentsa herriko txoko ezberdinetan eskuragarri jarri.		
	Berria/Kronika/Argia... zabaldu. Zerbitzu publikoa eskaintzen dutenei harpidetza erraztu.		
2.8	<b>Euskarazko kultur-produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.</b>		
	“Pantailak euskaraz” dinamika ezagutarazi.		
	Gazteak herri komunikabideetako eduki sortzaile izatea bultzatu: Kronikan ikasleen txokoa.		

2.9	<b>Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.</b>						
	Euskarazko produktuen katalogoa; etxe guztietara banaketa eta online harpidetza sustatu.	Buruntzaldea					
2.10	<b>Bereziki 16 urtetik beherako herritarrak lehenetsi esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan.</b>						
	Euskal <i>influencerrak</i> ekarri.						

## 4.5. IKERKETA / BERRIKUNTZA

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
5.1	<b>Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.</b>							
	UEMATik bideratzen diren ikerketen emaitzak herriratu.	UEMA						
	Herritarrek Astigarragari buruzko euskarazko proiektuak eta ikerketak garatu ditzaten sustatu, eta dibulgazioan lagundu.							
	Astigarragako hizkerari buruzko ikerketa-lana gizarteratu.							
	(Astigarragako) Euskararen historia sozialari buruzko dibulgaziorako beka antolatu.							
	Erabileraren kale-neurketa egin (5 urtetik behin) eta emaitzak herriratu.	Soziolinguistik a Klusterra						
5.2	<b>Euskarazko berrikuntza-ekosistema bat sustatu.</b>							

## 4.6. KOMUNIKAZIOA

LAN-ILDOAK		LANKIDETZA	2024	2025	2026	2027	2028	2029
6.1	<b>Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio-estrategia aplikatu.</b>							
	Udaleko iragarkiak eta informazioa, lehenetsunez, euskarazko komunikabideen bidez zabaldu.							
	Tokiko komunikabideak diruz lagundu eta herrian hedapena erraztu.	Dobera Euskara Elkarte (Kronika)						
	Euskara eta Hezkuntza sailetik egiten den lanaren berri eman.							
	Astigarragako Udaleko webgunean (astigarraga.eus) informazio gune propioa sortu. <a href="https://www.astigarraga.eus/eu/euskara">https://www.astigarraga.eus/eu/euskara</a> eta hezkuntza.							
	Herritarrak UEMAren parte direla sentitzeko, elkarlanean egindakoaren berri	UEMA						



	eman. (Astigarragan erabilera sustatzeko 2024ko plana).							
	Eskualdean elkarlanean garatzen diren ekimenen berri eman, eta webgune berriari erreferentzialtasuna eman (euskara.buruntzaldea.eus).	Buruntzaldea						
	Komunikazio jarduna indartu; xede taldeak identifikatu eta komunikazio berezitua bideratu Euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko plana 2024).							
	Haur, nerabe eta gazteekin prozesu parte-hartzailea antolatu; aisialdi-eskaintza egokitzeko eta komunikazio-bideak finkatzeko.							

## 5.

# JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Plan Estrategikoa aurrera eramatearekin batera, ezinbestekoa da neurtzea zenbateraino bete den aurreikusitakoa; planaren une oroko jarraipena eginez, aurrerabideak baloratuz eta ebaluatuz. Hori bermatzeko, hiru alor jorratuko dira; batetik, prozesua bera gainbegiratuko da; bestetik, planean jasotako ekimen zehatzak eta, azkenik, helburuen betetze maila eta eragina. Informazio kualitatibo zein kuantitatiboa jaso beharko da, lan-ekimen bakoitzarentzat egokienak diren adierazle zehatzen eta baligarrien bitartez. Informazio- eta datu-bilketa planifikatuko da plan estrategikoa aurrera eramateko urtez urte osatuko diren kudeaketa planekin batera eta lerrokatuta.

Horretarako, udaleko euskara eta hezkuntza batzorde-informatiboaz gain, propio sortuko da planaren segimendua egiteko **JARRAIPEN eta EBALUAZIO TALDEA**:

- Urtez urteko jarraipena: Euskara eta Hezkuntza sailaren arduradun teknikariaren gidartitzapean, planaren inguruko dokumentazioa eta bestelako materiala bildu ostean, urteko kudeaketa planaren gaineko jarraipena egingo da. Behin urtearen ebaluazioa osatuta, datorren urteari begirako kudeaketa planaren proposamena luzatuko da. Urtean zehar aurrera eramandako jardueren eta emaitza-adierazleen bitartez, egokitzapenak eta neurri zuzentzaileak ere mahaigaineratuko dira.

- Bi urtez behineko ebaluazioa: Plan estrategikoaren eta urteko plangintzen errotze- eta eragin-maila ebaluatuko dira, bi urtean behin. Plana indarrean jartzen denetik bi urtera egingo da lehen tarteko ebaluazioa (2026) eta bigarrena, berriz, 2028an. Tarteko ebaluazioaren emaitzak aurkezteko, txosten teknikoa aurkeztuko da Euskara eta Hezkuntza informazio batzordera. Plan estrategikoan jasotzen denez, gobernantzaren ardatz estrategikoaren baitan, lehentasunezko ekimena da ASTIGARRAGAKO EUSKARA KONTSEILUA SORTZEA. Hala, kontseilua eratua den heinean, kontseiluan bertan ere aurkezteko dira tarteko ebaluazioaren emaitzak.
- Amaierako ebaluazioa: Urteroko jarraipenetatik eta tarteko ebaluazioetatik jasotako informazioarekin osatuko da amaierako ebaluazioa. Plan Estrategikoaren bilakaera jasoko da, indarrean izan den epealdiko gorabehera guztiekin; hutsune nahiz lorpen, aurrera begirako proposamen bat luzatzearekin batera.

Edozein kasutan, aipatu jarraipen eta ebaluazioa taldea propio eratuko bada ere, zehazteke da A\*Nahi Dugun Astigarragarantz-Herri gogoetak egitasmoaren harira, arlokako plan estrategikoen jarraipena modu bateratuan egiteko mahai tekniko-politikorik sortuko ote den. Hala balitz, mahai horrekin lerrokatuta eta koordinatuta bideratuko du bere jarduna jarraipen taldeak.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- AHIZE-AEK (2023). Astigarragako merkataritza eta ostalaritza. Euskararen egoeraren azterketa.
- Astigarragako AEK (2023). Azken urteetako matrikulazio datuak.
- Astigarragako Udala (2023). Erabilera sustatzeko plana.
- Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) webgunea: <https://eu.eustat.eus/indice.html>
- Euskararen Aholku Batzordea Kultura saila (2012). Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.
- Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza: AROA. Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa. Euskararen Aholku Batzordea.
- Buruntzaldeko Udaletako Euskara Zerbitzuak (2023). Euskarako egitasmoak elkarlanean garatzeko Buruntzaldeko plana.
- Siadeco (2019). Astigarragako diagnostiko demografikoa eta Herri-Eskolaren eskariaren proiektzioa. 2030 ikusmugan.
- Soziolinguistika Klusterra (2021). Astigarraga, hizkuntza-erabileraren kale-neurketa.
- UEMA (2015). HEDATU. Euskararen arnaguneei buruzko hezkuntza proiektua.
- UEMA (2023). Udalerri euskaldunen demografia. Astigarraga.
- UEMA (2024). Astigarragako oinarritzko diagnostikoa eta lehentasunak.

# 7.

## ERANSKINAK

- Galdetegia.
- Elkarrizketetako gidoia.
- Lan-mahaietako argazkiak.
- Lan-mahaietan erabilitako aurkezpenak.
- Lan-mahaietan, galdetegietan eta elkarrizketetan egindako ekarpenak.